



STEE-EILAS-eko ORDEZKARIEN ELKARRETARATZEA IRAKASKUNTZA PRIBATUAN MURRIZKETEN KONTRA

Gaur, apirilak18, osteguna, irakaskuntza pribatuko ikastetxeetan STEE-EILASek dituen ordezkari sindikalek elkarretaratze bat burutu dute 12:30etatik aurrera Bilboko Plaza Biribilan. Ekimenaren helburuak, batetik patronalei irakaskuntza pribatuko sektorean - bai Giza Ekimeneko ikastetxeen esparruan, baita ikastoletan ere- indarrean dauden hitzarmenak bete ditzaten eskatzea eta, bestetik, salatzea Eusko Jaurlaritzak 2013ko aurrekontuen egitasmoan ezartzen dituen hezkuntzarako murrizketak.

Dagoeneko bost hilabete iragan dira Epaitegi Gorenak irakaskuntza pribatuko ikastetxeetako langileei ezarritako lan-sari murrizketak errefuxatu zituenetik. Hala ere, egun Kristau Eskola eta Partaide patronal erakunde nagusiek, beste patronal batzuek ez bezala, epaia bete gabe jarraitzen dute.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako hezkuntzarako aurrekontua %9 jaitsiko da 2012koarekin alderatuta. Besteak beste eta itunpeko ikastetxeekin lotuta, krisian dauden ikastetxeentzako partida desagertu egiten da, ikasle etorkinen laguntzarako partida %25 murrizten da, irakasleen prestakuntzari dagokiona %36, 0-3 zikloaren finantziazioarena %25 eta IRALeri dagokiona %17. Horrek guztiak ondorio larriak ekarriko ditu hezkuntza kalitatean zein langileen lan-baldintzetan.

STEE-EILASek eta gizarteak berak ere, behin eta berriz errefusatu dituzte zerbitzu publiko eta lan eskubideen aurkako neurri erasotzaile hauek guztiak. Ez dugu inolaz ere onartzen krisialdiaren ondorioak langileok eta hezkuntza sistemak ordaindu behar izatea.



Patronaleei sententzia onartzea exijitzen diegu, hitzarmenei kasu egiten nominak gaurkotuz eta 2010. urtetik legez kanpo kendutako lansariak ordainduz. Halaber, Eusko Jaurlaritzari exijitzen diegu hezkuntzarako murrizketan bertan behera uztea.

Horrela egin ezean, STEE-EILAS-ek mobilizazioekin jarraituko du eta beharrezko neurriak hartuko ditu irakaskuntza pribatuko langileen eskubideak babesteko.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org